

# Kontzejupe**tik**



## Has dadila musika

Musika gune berria egingo du Udalak Elkargunean. Musika Eskolarekin, herriko bandarekin eta herriko musika taldeekin elkarlanean adostutako proiektua da, eta ilusioz hartu dute eragileek.




**Pello Bastarrika, alkatea**  
"Indarrak batu eta garapen sozioekonomikoa bultzatzeko sortu dugu Iraurgi Berritzen"



**Azkoitia Lantzen**  
Sozietate publikoaren egoera kezkarria dela diote txostenek eta neurri zehatzak hartu ditu Udalak

# aurkibidea

- 3.....Pako Pako
- 8-9.....Hondakinen lan taldeak adostu ditu gutxieneko irizpideak
- 4.....Brigadak erabilera anitzeko makina erosi du
- 10-13.....**Musika Gune berria**
- 5.....Iraurgi Berritzen sortu da, sozioekonomia indartzeko
- 14.....Udal liburutegia

 Azkoitik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Kontzejupetik aldizkaria, posta bidez. Eskatu **943 85 71 76** telefonora deituta edo **alkatetza@azkoitia.net**-era idatzita.



## telefono interesgarriak

**UDALA**  
 Zentralita: 943 08 00 80  
 Kexak eta iradokizunak: 902 54 01 20  
 Herritarren arretarako bulegoa: 943 08 00 80  
 Idazkaritza: 943 85 71 75  
 Alkatetza: 943 85 71 76  
 Kontuhartzaitza: 943 85 71 73  
 Kultura, hezkuntza eta kirolak: 943 85 71 70  
 Gizarte ongizatea: 943 85 71 74  
 Euskara: 943 85 71 75  
 Hirigintza: 943 85 71 72  
 Ingurumena: 943 85 71 72  
 Udaltzainak: 943 85 71 71

**BESTE ZERBITZU BATZUK**  
 San Jose egoitza/eguneko zentroa: 943 85 13 23  
 Jubilatuen etxea: 943 85 21 68  
 Elkargunea: 943 85 25 44  
 Aizkibel liburutegia: 943 85 08 98  
 Kultur etxea: 943 85 71 70  
 KZ gunea: 943 02 6710  
 Gazte Informazio Bulegoa: 943 02 60 27  
 Abarketatxo ludoteka: 943 08 38 00  
 Ertzaintza: 943 08 37 80  
 Osasun etxea: 943 007 610  
 Iraurgi Berritzen: 943 85 11 00  
 Mankomunitatea 943 85 73 19

## herritarrei erantzunez

• **Idazten dut harrিতa nagoelako igerileku ondoko isunen kontuekin. Egia da kotxeak ez dutela politik ematen ez han eta ez beste kaleetan ere, baina kotxeak hor daude eta aparkamendu arazoa ere bai. Kontua da alde batetik ez dudala ongi ikusten egun batetik bestera, batere abisurik gabe, isunak jartzen hastea. Beste alde batetik egoera puntual baten aurrean gaude, eguraldi ona egiten duen udarako arratsaldetan bakarrik sortzen da arazoa eta gainera inork ez duen erabiltzen espaloi batean eta igerilekutara joandako jendearen trafikoa edukitzen duen bide batean. Ez dut uste oso grabea denik. Gainera arazoak hor segitzen du, ze kotxe horiek beste toki batzuetara mugitu baitira.**

Espaloiak oinezkoentzat dira, errepideak autoentzako, eta aparkatzeko aparkalekuak daude. Ez da estetika kontua: espaloietan autoak aparkatuz gero, oinezkoen eskubideak urratzen dira. Gurpildun aulkiek ezin dute bertatik pasatu, ez eta ume kotxeek ere eta oinezkoek ere, justu-justu. Irigarritasuna ukatzeaz gain, arriskutsua ere bada, errepidera atera behar izaten delako eta han autoak ibiltzen direlako. Erdigunetik igerilekura 10 minutu daude oinez, eta autoz joan nahi duenak 100 metrora aparkatzeko leku ugari ditu. Gizatasunez eta zentzuz jokatzeko eskatzen diegu herritarrei; azkoitiar guztien eskubideak bermatzeko ezartzen dira arauak eta arau horiek errespetatzeko eskatzen diegu. Igerileku inguruko arazoa aspaldikoa da eta egoera aldatu ez denez, ezinbestean hasi gara isunak jartzen. **AZKOITIKO UDALA**

**Pako-Pakok** Azkoitiko kontu asko dakizki, baina ez denak. Izan ere, ezinezkoa da gogoan izatea hainbeste gertakari, pasadizo eta herriko pertsonaien izenak.

Horregatik, kontatu Azkoitiko pasadizo bat, gertaera bat edo erakutsi etxean duzun argazki zahar hori **Pako-Pakori**. Herritarrok bidalitako gutunak eta argazkiak ere tarte honetan argitaratuko dira hemendik aurrera.

**Kontatu Pako-Pakori:**  
 - Kultura bulegoan, udaletxeko 3. solairuan.  
 - kultu@azkoitia.net-en bidez.

*Pako-pako quiere recopilar fotografías e historias antiguas. Envíale las tuyas al Departamento de Cultura (3º piso del ayuntamiento) o a kultu@azkoitia.net.*



Boliviako enbaxadorea, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia eta Azkoitiko alkatea.

### **Bizenta Juaristi: iraultzaren sustraiak, Azkoitian**

Ba al zenekien Boliviaren askapenerako iraultzaile esanguratsuenaren sustraiak Azkoitian daudela? Bizenta Juaristi izan zen iraultzaile hori; Boliviarra zen jaiotzez eta izatez, baina bere aita azkoitiarra zen. Etxe onekoa eta aberastasun handikoa, hasiera hasieratik sartu zen Espainiarekiko askapen borrokan Juaristi, eta besteak beste, bere ondasunak Simon Bolivarren armada hornitzeko erabili zituen. Hizketarako eta diskurtsoetarako gaitasun handia zuen eta iraultzaren eta askatasunaren alde esan zituen hitzik ederrenak. Horregatik, behin baino gehiagotan atxilotu eta espetxeratua ere izan zen.

Heroizat daukate Bizenta Juaristi Bolivian, eta ekainaren 18an herrialde hartako enbaxadorea, Mari Carmen Almendras, Azkoitian izan zen haren jatorriak ezagutzen. Bisita hark bi herrien arteko harremanak sendotzeko balio izan du. Harrera ofiziala egin zion Udalak, eta Bizenta Juaristiren historia eta egun Azkoitian dituen oinordekoak ezagutu ostean, herriko txoko esanguratsuenak erakutsi zizkion Pello Bastarrika alkateak enbaxadoreari. Alkatea eta enbaxadorea bat etorri ziren Bizenta Juaristiren borroka goraiatzerakoan eta egun herrien askapenerako borrokan ari diren euskalherriarrak ere kontuan izan zituzten. Egindako bisita bi herrialdeen arteko harremanak finkatzeko zubi izateko nahia azaldu zuten bi ordezkariak eta irailean Boliviako enpresen ordezkariak batekin itzultzeko asmoa aurreratu zuen enbaxadoreak.

*Vicenta Juaristi, una de las revolucionarias más destacadas de la lucha por la independencia boliviana, tenía raíces azkoitiarras: su padre ere oriundo de nuestro municipio. Con el objetivo de conocer los orígenes de Juaristi, la embajadora de Bolivia ha visitado recientemente Azkoitia y el encuentro ha servido para estrechar los lazos entre el país sudamericano y nuestro municipio.*

## Herri-lanak, hobeto eta azkarrago

Brigadarako makina berria erosi du Udalak; aparatu berriarekin landa eremuko zein herri guneko lanak azkarrago eta hobeto egitea espero da hemendik aurrera



Brigadako langileak, makina berriarekin lanean.

Udalak erabilera anitzeko makina berria erosi du, brigadarako. Makina malgua da, pieza ezberdinak jarri eta kentzeko aukera ematen duena, eta ondorioz, lan ezberdin ugari egiteko modua eskaintzen du, bai landa eremuan eta bai herri gunean ere.

Eta dagoeneko hasi da lanean. Hilabete hasieratik, baserri bideak eta landa eremuetako errepideak garbitzen eta txukuntzen ari da brigada makina horrekin, eta irailera bitartean horretan arituko da, Azkoitiko landa eremuko bazter guztiak pasatu arte.

Udazkenetik aurrera, makina horrekin honako lanak egingo dira, besteak beste:

- Otarre jatetxearen fosa aseptikoa.
- Axiriko gunean aparkalekua.
- Uholdeek landa eremuan eragindako hainbat kalte konpontzeko lanak.

Brigadarako makina berria erosituta, zerbitzu publikoen aldeko apustua berretsi du Udalak. Orain arte, Azkoitiko herri-lanetako asko enpresa pribatuei azpikontratatzeko zitaizkien, baina horren ordez, Udalak bere gain hartzea erabaki zuen legegintzaldi

hasieran. Orain urtebete, brigadarako langile gehiago kontratatu zituen eta orain lanak egokiago egiteko makina berria eskuratu du. Hemendik aurrera ere bide horretatik jarraitzeko asmoa du Udalak.

*El Consistorio ha adquirido una maquina polivalente para la brigada. Dicha máquina servirá para realizar obras tanto en zonas rurales como en urbanas. La brigada ya ha comenzado a limpiar las vías rurales con la nueva maquina y espera terminar esa labor para septiembre.*

### Martirietako bidea, zabalik

Martirietako bidea zabalik dago jada. Urte hasieran luiziak emandako errepidea berreraikitze lan handienak amaitu ditu Foru Aldundiak, eta dagoeneko erabiltzeko moduan da bidea. Halere, lanak ez dira guztiz amaitu: errepidea egokituta dago, baina azkeneko asfaltu geruza botatzea falta da eta lurrak egonkortzeko lanak ere ez dira guztiz bukatu. Horregatik, behin behineko irekitzea erabaki da, betiere dagokion segurtasun neurri guztiak hartuta.

*Los trabajos de reconstrucción de la carretera a Martirieta están a punto de terminar, por lo que la Diputación ha decidido abrirla, con las pertinentes medidas de seguridad.*



“Garapen sozioekonomikoa sustatzeko erreminta sendoago bat sortu dugu, langile, enpresa eta eragileen etorkizuna bermatzeko”

Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza sozioekonomia arloa garatzeko udalak sustengatzen dituen hiru eragile dira. Hiru eragile horiek bat egin eta Iraurgi Berritzen jaio da orain, “baliabideak optimizatu, kudeaketa eraginkorragoa egin eta bailararen garapen ekonomikoari are bultzada handiagoa emateko”. Bat egiteaz eta helburuez aritu da Pello Bastarrika Azkoitiko alkate eta Iraurgi Lantzeneko presidente ordea.

#### Zein helbururekin erabaki duzue hiru eragileak bat egitea?

Garai zailak bizi ditugu eta egoera kezagarria daukagu bailaran. Horri aurre egiteko baliabideak eduki baditugu: Iraurgi Lantzen garapen agentzia daukagu; Ezagutza Gunea ere hor dago, enpresa, erakunde publiko eta ikastetxeen arteko elkarlan bideak jorratzeko; eta Loiola Berrikuntza Fundazioa ere orain urte batzuk sortu zen, ekintzailatasuna, berrikuntza eta garapen teknologikoaren arloak lantzeko, ikerketa arloan. Baina hiru eragile horien artean duplizidadeak sortzen zirela ikusi dugu, bakoitza zertarako den identifikatzeko nahasmena dagoela ere bai, edo eta Udalaren garapen proiektuekin batzuetan talkak daudela. Horri buelta eman, baliabideak optimizatu, kudeaketa eraginkorragoa egin eta garapen ekonomikoari are bultzada handiagoa emateko hartu dugu erabakia.

#### Nola egingo duzue hori?

Dagoeneko kudeaketa plan bateratu bat onartu dugu. Orain arte hiru eragileek eta udalek euren planak zituzten, baina orain bakarra eta bateratua izango dugu. Zuzendaritza bateratu bat ere sortu dugu, erabaki gune bateratu bat izateko. Eta komunikazio plan bateratu bat ere jarri dugu martxan, Iraurgi Berritzen izenarekin, garatzen ditugun proiektuak hobeto gizarteratu eta komunikatzeko. Horrez gain, eskumen batzuk berriro ere udalen eskuetara pasatuko dira, besteak beste Munoandi, logopedia zerbitzua, taxiena... Bat egite prozesua hasi egin da eta orain pixkanaka-pixkanaka joango gara kontuak lotzen eta fintzen.

#### Eta egungo sarean izango al du horrek eraginik?

Oraingoz 12 langile ari dira lanean aipatu hiru erakundeetan eta guztiek jarraituko dute. Are gehiago, gure asmoa da sozioekonomia eta garapen arloko leiho eta alor gehiago

irekitzea, formazioan, enpleguan eta beste hainbat alorretan sakontzeko, eta horrek plantilla zabaltzea ekarriko du. Eta hori horrela izanda, aurrekontua bera ere zabaltzea aurreikusten da.

#### Ze onura ekarriko ditu honek?

Ditugun baliabideak hobeto aprobetxatu eta oraindik lantzeke dauden alorrak garatzeko helburua du Iraurgi Berritzenen, eta horrek, ezinbestean ekarri beharko lituzke onurak sozioekonomia alorrean. Bailararen garapen sozioekonomikoa sustatzeko erreminta sendo eta indartsuago bat sortu dugu, bertako langile, enpresa eta bestelako eragileen etorkizuna garatzeko lan egingo duena. Formazioa, ikerkuntza, teknologia berriak, enplegua... argi dago horiek direla etorkizun ekonomikoa bermatzeko gakoak, eta horiek bertan eta bertarako landuko dira. Bide onetik goaz, eta bidetik onetik joanez gero, fruituak iritsi egiten dira.

*Los ayuntamientos de Azkoitia y Azpeitia han decidido fusionar Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea y Loiola Berrikuntza y de esa fusión ha nacido Iraurgi Berritzen. El objetivo es aunar sinergias y esfuerzos en el ámbito del desarrollo socioeconómico de la comarca, optimizar recursos y realizar una gestión más efectiva. La nueva organización abarcará todos los ámbitos que hasta ahora desarrollaban las tres agencias mencionadas, pero ampliará su abanico de actuación: entre otros proyectos, está previsto poner en marcha un servicio de empleo, además de prestar especial atención a la formación. El alcalde Pello Bastarrika cree que Iraurgi Berritzen será clave para el futuro económico de la comarca.*

## Garapenean Bidelagun



Herrian dauden Gobernu Kanpoko Erakundeen lana plazaratu eta elkartasuna sendotzeko aste solidarioa prestatzen ari dira Udala eta hainbat eragile, irailerako

Herri solidarioa da Azkoitia, elkartasunean aberatsa. Asko dira behar gehien dutenen alde lan egiten duten elkarte, GKE Gobernu Kanpoko Erakunde eta herritarrak. Baina horietako askoren ahalegina ez da ezagutzen herrian eta euren artean ere harreman gutxi dute. Hala ikusi zuten elkartasun lanetan aritzen diren eragileek eta Udalak, orain gutxi egindako bilera batean, eta hori nola aldatu aztertzen hasi ziren. Ahalegin horrek irailean izango du aurreneko emaitza: Aste Solidarioa egingo dute Azkoitian dauden Gobernu Kanpoko Erakunde, elkarte eta eragileek, irailaren 26tik 29ra. Garapenean Bidelagun izango du izena ekimenak.

Helburua xumea da: elkartasunaren arloan herrian lanean ari direnen

ahalegina plazaratzea eta elkarren arteko harremana sendotzea. "Elkartasunaren balioa oso aberasgarria delako eta balio hori azkoitiarrengana iristea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigulako". Hala adierazi dute antolatzaileek.

Eta nola egin hori? Elkarte bakoitzak egiten duen lanaren berri emanez, adibidez. Hala, egun horietan, herrian lanean ari diren zortzi GKEek postu bana jarriko dute plazan, zein proiektu babesten eta laguntzen dituzten azaltzeko. Salmenta postuak ere jarriko dira, eta hamaiketako ere bai, beti ere elkartasun proiektuei laguntzeko. Eta noski, kultura: poesia emanaldia, musika... Iparra-hegoa harremanetan oinarritutako hitz eta doinuak entzuteko aukera ere izango da hiru egunez Azkoitian.

Elkartasuna eta solidaritatea balio oso garrantzitsuak dira, eta egunotan inoiz baino gehiago. Elkarte guzti horiek diruz laguntzen ditu Udalak, euren lanean sinesten duelako. Lan hori zabaldu eta indartzen ere bidelagun izan nahi du eta beste horrenbeste egiteko eskatzen die herritarrei. Premiari aurre egiteko biderik aberatsena elkartasuna delako.

*Las ONGs de Azkoitia han organizado una Semana Solidaria para darse a conocer ante la ciudadanía y estrechar relaciones con los demás agentes sociales. Dicha semana se celebrará del 23 al 26 de septiembre, y en ella participarán nueve ONGs que actualmente actúan en el municipio. Habrá puestos de información y actuaciones culturales, entre otros eventos.*

### Elkarteen deskribapenak

Bederatzi elkarte, bederatzi amets. Hauek dira Aste Solidarioan parte hartuko duten GKEak:



#### ACOES: "Asociación colaboración esfuerzo Honduras".

Gipuzkoan 2.007tik ari dira lanean, *Hemengo laguntzak hango eskolak* programarekin. Udaletan aurkeztu eta onartutako proiektuei esker, Hondurasen eskolak ireki eta gutxieneko hezkuntza ematea dute helburu. P. Patrizio eta beste hainbat boluntariorekin zuzenean egiten dute lana. Informazio gehiago: [www.acoes.org](http://www.acoes.org) webgunean.



#### Bidezko Merkataritza

Azkoitian hamar urte daramatzate lanean. Hirugarren munduko herriei euren garapenean laguntzeko, jatorrizko produktuak, hemengo prezioetan saltzen dituzte, bitartekoen etekinik gabe. Bidezko merkataritza izango bada, produzitzeko era ere bidezkoa izan behar du. Hau da: lan harremanak etikan eta gizatasunean oinarrituta izan beharko dute eta modu ekologikoan ekotzi beharko dira produktuak.

#### Nava Jeevan-Bizi Berria



Duela 3 urte Azkoitia, Azpeitia, Zumaia eta Debako kideekin sortutako taldea da. Helburua, ISSA (The Indian Society for Sponsorship and Adoption) elkartearekin harreman zuzena bermatuz, hiru proiekturen finantzazioan laguntzea da: gaixorik dauden haurren mantenu eta tratamenduan; umeen etorkizuna bultzatzeko, haur eskola baten egokitzapena; eta emakumeen autonomia lortzea eta haurren hezkuntza bultzatzea.



#### The Direct Help Fundation – Kathmandu (Nepal)

2001ean sortutako TDHF Fundazioak gehienbat Kathmanduko 18. auzoan egiten du lan. Hasierako proiektua Kumary etxean kaleko umei zaintza eta harrera ematea izan zen. Horretaz gain "arkatzaren iraultza" deituriko proiektua martxan da, bertan oso egoera txarrean dauden emakumeak alfabetatzen dira lanpostu batera bideratuz eta beraien egoera gordina hobetzen lagunduz. Webgunea: <http://tdhf.iber.net.com/>



#### Perurekin

Irabazi asmorik gabeko erakunde laikoa da Perurekin, 2011n sortutakoa. Limako San Juan de Lurigancho barrutiarekin harremana izandako gazte talde batek jarri zuen martxan. Helburua hango proiektuak diruz lagundu eta hango errealitatea hemen, Euskal Herrian, ezagutaraztea da. Hezkuntza, generoa, hirugarren adina eta nutriziora bideratzen dira, batez ere, proiektuak.



#### Parapeti-Bolivia

Ezintasunak dizuten hurrei zuzendutako hezkuntza eta kultura proiektua. Honako helburua du: hezkuntza sistema erregularrean eta hezkuntza berezitan hezkuntza inklusiboa sustatzea, eragile guztiak sentsibilizatuz, eta gizartea arreta integralaren jabe eginez, inor diskriminatu gabe.



#### Gazteak eta garapena

Graren bidean dauden herrietako proiektuak babesten ditu, batez ere ume, gazteen eta emakumeen hezkuntza eta prestakuntza bideratuz. Azkoitian Gazteak eta Garapenearen taldea udalean erregistratuta dago 2004tik. Urtean zehar ekintza ugari egiten ditu, batez ere Beningo kaleko umeen aldeko proiektuari laguntzeko: zozketak, solidaritate pintxoak, Santa Eskea, janari bilketa...

#### Behar Bidasoa



1976. Jose Ramon Amunarriz misiolari irundarra Ruandara joan zen, Kabuga nekazal ingurunera. Bertakoen bizi baldintzak hobetzeko ahaleginean hasi zen, eta horretan laguntzeko helburuarekin sortu zen Behar Bidasoa, 1989an. Baliabide materialen eta giza baliabideen bitartez garapenerako proiektuak sustatzea du helburu, hirugarren munduko herrien interes objektiboek erantzuteko, beti ere mendekotasunik ez sortzen ahaleginduz. Honako lekuetan hari da lanean: Kabuga (Ruanda), Rumbi (Kongo), Cubal (Angola), Villarica (Paraguai) eta Pereiran (Kolonbia). Informazio gehiago: [www.beharbidaso.org](http://www.beharbidaso.org)



#### Mundu solidarioa helburu Niraragua

Justizian, solidaritatean eta bakean sinisten duten gizon eta emakumez osatutako taldea da. Hala definitzen dute euren burua. Erakunde apartidista eta akonfesionala. 1998. urtetik Nikaraguako Diriamba udalerriko emakume zein helduekin elkarlanean dihardute: altzairu artisauekin, adimen urritasuna edota fisikoa duten pertsonekin eta beraien senideekin eta garapen agenteak izateko hezten ari diren gazteekin.

## Gutxieneko irizpideak ezarrita

Hondakinen lan taldeak amaitu ditu bilera-saioak eta adostu ditu gutxienekoak

Azkoitiko Hondakinen Lan Taldeak atera ditu bere ondorioak eta adostu ditu herriko bilketa sistemak izan beharko lituzkeen gutxienekoak. Bost saio behar izan dituzte horretarako: aurreneko lauretan hondakinen kudeaketaren inguruko gai ezberdinak landu dituzte, eta azkenekoan ondorio nagusi batzuk atera. Azkoitiko hondakinen kudeaketan bete beharreko gutxieneko batzuk adostu dituzte, eta irizpide horiek aurkeztu dizkiote Udalari. Honakoak dira adostutako puntuak:

### 1. Bilketa ereduaren inguruan:

- Sistema ezartzen denean, sailkatze maila %70ekoa izatea (2014) eta bi urteren epean, %80-85era iristea.
- Gaika bildutakoaren kalitatea bermatuko duen eredu izatea.
- Errefusari atekak itxiko dizkion eredu izatea.

### 2. Hondakinak sailkatzea herritar guztion betebeharra da.

### 3. Prebentzio politikak beharrezkoak dira.

4- Irizpide hauetan oinarritutako bilketa eredu zehazterakoan **irizpide teknikoak hartuko dira kontuan.**

Lan talde honen helburua argia izan da: hondakinen kudeaketaren inguruko eztabaida plano teknikoan kokatzea: adituak, talde eragileak, udal ordezkariak, herritarrak... gutzien artean informazioa jasotzeko, kontrastatzeko eta ekarpenak egiteko, eta horren ondoren, ahal den neurrian, hiri-hondakinen kudeaketa eredurako ezarpenen eman beharreko pausuak adosteko.

Hondakinen Lan taldeak adostutako irizpide horiek jaso ditu Udalak eta herrian zein bilketa sistema

erabakitzerako orduan mahai gainean jartzeko konpromisoa hartu du.

*El grupo de trabajo sobre la gestión de residuos ha acordado los mínimos que el sistema de recogida de residuos de Azkotia debería cumplir. Son los siguientes: La tasa de recogida selectiva será del %70 el primer año ,y en dos años se deberá llegar al 80-85%; será un sistema que garantice la calidad de lo recogido y que cierre la puerta a la fracción resto; separar los residuos es una obligación de toda la ciudadanía; son necesarias políticas de prevención; el sistema de recogida elegido deberá basarse en criterios técnicos. El grupo de trabajo ha propuesto al ayuntamiento que se comprometa a poner en marcha un sistema de recogida que garantice dichos objetivos.*

## Lau hilabete hausnartzen eta lantzen

Hondakinen Lan Taldearen aurreneko bilera apirilean egin zen. Orduz geroztik, lau hilabetean aritu dira gaiaren inguruan hausnartu eta hitz egiten. Jarraian, egindako saioen laburpena:

### Aurreneko saioa:

Azkoitiko eta eskualde datuak ezagutu ziren eta 5. edukiontzia ez dituela emaitza onak ematen ondorioztatu. Herritarren borondatean oinarrituriko bilketa sistemak ez duela funtzionatzen ere bat etorri ziren bildutako guztiak.



### Bigarren saioa

Imanol Azpiroz GHK-ko administrazio kontseiluko kide eta Sanmarko mankomunitateko presidente ohiak gaikako bilketa eta bilketa masiboaren onurak eta kalteak aztertu zituen.



### Laugarren saioa

Bilketa sistema ezberdinek dituzten kostu ekonomikoak aztertu ziren. Horrez gain, eskualdean atekako sistema ezartzeko bideragarritasun tekniko ekonomikoa azaldu zuen Garbitaniko teknikari batek, gai horren inguruan Mankomunitatearentzat egindako ikerketa aurkeztuz. Ateratako ondorioak: atekako garestiagoa denaren ideia ez da egia. Datuek horrela erakutsi zuten.



### Hirugarren saioa

Egun martxan dauden bilketa sistema desberdinak ezagutu ziren: Zarautz, Itsasondo eta Astigarrakoak. Taldeka hausnartu ondoren, 2014rako Azkoitian %80ko bereizte maila lortzeko helburua aipatu zen eta helburu hori lortzeko puntuazio altuena atekako ereduak lortu zuen.



### Bosgarren saioa

Ordura arteko saioak baloratu eta Azkoitiko hondakin sistemaren gutxieneko irizpideak adostu ziren.



### Auzokonposta gune berria

Auzokonposta egiteko liburutegi inguruko gunea handitu egin du mankomunitateak, eta horri esker, hirugarren talde bat hasi da auzokonposta egiten Azkoitian. Horrez gain, autokonpostagailu gehiago ere banatu dira herritarren artean.

*Nueva zona para el compostaje comunitario.*



Elkargunearen azpialdeko lokal handian kokatuko da musika gune berria.

Gune berriak 1.000 metro karratu inguruko azalera izango du eta egitura honakoa izango da: Musika eskolak, batetik, bere gelak eta bere gune propioa izango ditu; musika talde ezberdinentzat beste hiru gela intsonorizatuko dira; eta azkenik, hirugarren gune bat egongo da, bai bandakoek, bai musika eskolakoak bai beste musika taldeetako kideek konpartitzeko.

Dagoeneko egitasmoaren oinarriak adostu dira eta orain proiektu osoa definitzen ari dira eragile guztiak. Prozesua aurrekusi bezala joanez gero, gune berria 2015erako martxan izatea espero da.

### 1.000 metro karratu izango ditu gune berriak, espazio ezberdinetan banatuta

Elkarlanaren fruitu eta proiektua izango da Elkarguneko musika gune berria. Izan ere, herriko azpiegiturak herritarrentzat eta herritarren beharren arabera izan behar dutelakoan dago Udala eta hori da egitasmo honen funtsa.

Eta printzipio hori aintzat hartuta, haratago ere joango da: Elkarguneko musika gunearen proiektua gauzatzen den bitartean beste parte hartze prozesu bat irekiko du azkoitiarrekin, musika eskolaren egungo egoitza libre gelditzen denean eraikin horri zein erabilera eman herritarrekin batera erabakitzeko.

*El Ayuntamiento acometerá a lo largo del próximo año un proyecto que permitirá dar respuesta a las necesidades que tienen en la actualidad diferentes entidades y agrupaciones musicales de la localidad. El nuevo proyecto*

*reubicará en la planta baja del edificio Elkargune a la Música eskola, a la banda de música municipal y a diferentes agrupaciones musicales del municipio. Se pretende dotar a la localidad de un espacio adecuado*

*para promover la creatividad cultural y la colaboración entre los diferentes agentes del ámbito de la música, y cuenta con el apoyo de dichos agentes, ya que ha sido diseñado y aprobado por todos ellos.*

# Musikaren elkargune

Musika eskola, herriko banda, eta herriko musika taldeentzat gune berria eraikiko du Udalak Elkargunearan, beharrei irtenbidea eman eta sorgune berri bat sustatzeko

Musikaren harrobia, oraina eta etorkizuna; guztiak batera bilduko ditu musika gune berriak. Eta musika ikastea, lantzea eta taularatzea; guztiak ahalbideratuko ditu. Azken urteotan Azkoitian musika talde eta elkarten beharrak asetzera datorren proiektua da, talde eta eragileekin elkarlanean landu eta diseinatutakoa, azkoitiarren beharrei erantzun eta herriko azpiegiturak hobeto aprobetxatuko dituen.

Azkoitiko Musika eskola aspalditik ari zen egungo egoitza berritzeko eskean: egungo eraikina zaharkituta dago, irisgarritasun arazoak ditu, segurtasun neurriak ez ditu betetzen eta leku premia du. Horrez gain, herriko musika bandak egoki

intsonorizatutako lekurik ez du, eta beste horrenbeste gertatzen zaie herriko musika taldeei.

### Azkoitiko musika eragileen artean sarea sortu nahi da, elkarlana indartzeko

Behar guzti horiei irtenbide bateratua nola eman aztertzen aritu da hilabeteotan Udala, musika eragileekin elkarlanean. Egun dauden azpiegitura publikoak aztertu dituzte, egokitze lanen kostuak kalkulatu, eta

aukera ezberdinak kontuan izanda, irtenbide egokiena Elkargunearan beheko aldean libre dagoen lokal handi horretan gune berezi bat sortzea dela erabaki dute. Aukera hori Danon Herrixe parte hartze prozesuan ere aztertu zen eta herritarrek bat egin zuten asmoarekin. Beraz, herritar eta eragileekin elkarlanean sortutako proiektua da.

Helburua argia da: musika eskolaren, bandaren eta herriko musika taldeen beharrei irtenbidea ematea. Baina hori baino gehiago ere izan nahi musika gune berriak: Azkoitiko musika eragileen artean sare bat sortu nahi da, euren arteko elkarlana indartzeko. Azken finean, sormen kulturalerako eta elkarlanerako gune bat izango da.



Udalak eta musika eragileek elkarlanean diseinatu eta adostu dute proiektua.

# Harrobia eta etorkizuna, batera

Aukera paregabea. Hala eskaini dezake Azkoitiko musika guneak bere erabiltzaile izango direnen iritziz. Bai irakaskuntzarako, bai elkarlanerako, eta bai sormena eta proiektu berriak martxan jartzeko.



Suharri Aranburu, Jon Zuloaga, Djuniet Astigarraga, Jon Olazabal eta Nestor Cruz

**“Sormenerako ahalmena badago herrian eta honek indartu egin dezake”**



Mari Jose Arregi

**“Elkarrekin proiektu interesgarriak egiteko modua eskaini dezake”**



Etxaniz, Alberdi eta Arruabarrena

**“Bandarentzat harrobia sortzeko aparteko aukera iruditzen zaigu”**

“Harrobia sortzeko aparteko aukera iruditzen zaigu”. Hala diote Juan Mari Arruabarrenak, Iñigo Etxanizek eta Jon Larrañagak. Azkoitiko Bandako kideak dira hirurak, eta ilusio handiz ikusten dute proiektua. “Gaur egun, gabeziak ditugu bandan: tronpeta, tuba, tronpa eta beste instrumentu batzuen jotzailerik ez dugu, musika eskolan aritzen diren ume gehienek beste instrumentu batzuk aukeratzen dituztelako. Elkarlanean eta gune berean arituta, instrumentu horiek gertuagotik ezagutu eta ikastera animatu daitezke”. Argi ikusten dute: kontzertu pedagogikoak, entsegu irekiak... elkarlanak aukera ugari eskaintzen ditu herriko musika eragileen arteko lotura indartzeko, eta hori oso aberatsa izango delakoan daude.

Bat datoz horrekin herriko musika talde ezberdinetako ordezkariak ere: “Gertutasunak beti ematen du aukera, elkar ikusi, zertan ari garen jakin, eta zerbait batera egiteko ideiak atera daitezke”, diote Suharri Aranburu, Jon Zuloaga, Djuniet Astigarraga, Jon Olazabal eta Nestor Cruzek. Azkoitiko hainbat musika taldeetako kideak dira, eta oso gustura hartu dute eurentzat entseatzeko lokalak prestatzea. Orain Urrestillara joaten dira gehienak, baina herrian bertan eta eskura lokalak izateak banaka zein taldeka musika lantzeko

aukera gehiago eskainiko diete eta hori oso garrantzitsua dela diote. Herriko musika taldeen artean mugimendua eta sormenerako ahalmena badutela aldarrikatu dute, eta Udalak lokal eta azpiegitura egokiak jartzea bultzada garrantzitsua izango delakoan daude.

Bizkargi Musika eskolako arduradunek ere begi onez ikusten dute proiektua. “Herriak irabazi egingo duela iruditzen zait, bai Musika Eskolak izango dituen onurengatik eta baita musika eragileen arteko filosofia berriarengatik ere”, hala adierazi du Mari Jose Arregi zuzendariak. Irisgarritasuna eta kokapena bereziki onak direla uste du, “orain arte Musika Eskolara etorri nahi eta ezin izan dutenei atea irekiko dizkiolako”. Euren beharretara hobeto egokitutako azpiegiturak izango dituztela eta gustura ageri da. Eta musika gune berria ere “oso interesgarria” iruditzen zaio: “Elkarlana, proiektu bateratuak... gauza ugari egin daitezke elkarren artean eta bide hori irekitzea ederra da”.

*Representantes de la Banda Municipal, La Musika Eskola y de los diversos grupos de música del municipio creen que el nuevo proyecto abre un amplio abanico de posibilidades de colaboración y creación entre los diferentes agentes musicales.*

## alderdien ahotsa



Urteetaik zetorren arazoa da Musika eskolako eraikinarena. Herriko haur, gazte eta heldu ugari maiz erabiltzen duten bilgune bat izanik, onartezina zein eraikina modu horretan mantentzea. Irisgarritasun aldetik dituen arazo larriez gain, segurtasun arazoak ere baditu eraikin horrek; eta arazoari partxe txikiak jartzen ibiltzeak ez du arazoa konpondu.

Bestalde, Elkargunearen eraikinean egindako gastua egin eta gero, erabilerarik gabe zegoen metro karratu kopurua izugarria zen. Herriko musika taldeentzako zirela esandako lokalak erabiltzeko behar bezala antolatu gabe jarraitzen zuten, eta hutsik. Bilduk herriko musika eragileekin harremanetan jarri, eta guztiakin elkarlanean eta guztien adostasunez herrian zegoen arazo bati irtenbidea ematea lortu du. Herritar guztion onerako dena, ongien herritarrok baitakigu. Horregatik da hain garrantzitsua herriarentzako erabakiak herriarekin partekatuz hartzea.

Ea lehenbailehen egokitze lanak amaitu, eta azkoitiar askoren musikarako grina gauzatzeko bidea errazten dugun.



PSE-EE-PSOE no ha remitido ninguna opinión sobre el tema tratado.



Musika Eskolako batzordetik, Musika Eskola berria Elkargune azpiko lokaletan egitea proposatu zutenetik, hainbat proposamen egin dizkigute udaletxean gauden alderdiok. Bere garaian, beharrezko izango luketen gela kopuru minimoen planoa, insonorizazio proposamenak etab.

Behar hauek ikusirik, Azkoitiko udalean gauden alderdi politiko guztiok, lehentasunezko proiektutzat onartu genuen 2013-14rako aurrekontuei dagokionez.

Proiektu honi bueltak ematen eta herriko beste behar batzuk ere kontutan izanik, proiektua orokortu eta Azkoitiko Musika banda eta musika taldeentzako gelak bertan sartzera erabaki zen. Honek haserako proiektua handiagotu egiten du eta beraz, hasierako 600.000ko aurrekontua ere handiagotu egingo du.

Prest dago egungo udal gobernua balorazio ekonomiko berria onartzeko? Gu BAI!



Horrenbeste krisi, desadostasun eta abarren artean poztekoa da horren gai garrantzitsuen inguruan ia erabateko akordioa egotea alderdien eta herritarren artean.

Ziurrenik legealdi honetan egingo den inbertsiorik handiena izango da (500-600 mila euro) beste zor batzuek ordaintzen nahiko lan badaukagulako.

Guk, Azkoitia Baik, arlo honetan lantzeko bi proposamen egin nahi ditugu:

1-Musikaren gune berri honen aldamenean Elkarguneko areto nagusia daukagunez, areto horri etekina ateratzen hasi beharko genuke.

2- Gaztan Enearekin (Musika Eskolako gaur egungo eraikina) zer egin dezakegun aztertzeke parte hartze prozesua, herri galdeketaekin amaitu dezakeguna, martxan ipini.

## Egoera bideratzeko neurriak

Azkoitia Lantzenen egoera kezkarria dela erakutsi dute Diputazioaren eta auditoria etxearen txostenek

2011 udan, egungo udal gobernua kargua hartu eta herria kudeatzen hasi zenean, Azkoitia Lantzen sozietate publikoaren egoera kezkarriarekin egin zuen topo: sozietatearen datu ekonomiko-finantziarioek egoera larria aurreikusten zuten, epe motzean aurre egin beharreko obligazio ugari zeudelako eta horri aurre egiteko baliabide gutxi.

Urte horretako kontuek areagotu egin zuten susmoa: 2011ko kontuetan gabezia ugari zeudela ikusi zuten udal gobernuko kideek, patrimonioaren balorazioa ez zela erreal, obligazio batzuk kontuan hartu gabe zeudela... Horregatik, neurriak hartu eta Azkoitia Lantzenen benetako egoera zein den jakiteko ikerketak agindu zituen. Batetik, sozietate publikoaren patrimonioaren berri baloratzeko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, salerosketa prezioan baloratuta zeudelako ondasunak, eguneraketarik gabe, eta egun lur horien balioa asko aldatu dela agerikoa zelako. Eta bestetik, balorazio horiek kontuan hartuta sozietate publikoaren egoeraren inguruko diagnostiko bat egiteko agindu zion auditoria etxe bati eta bideragarritasun plan bat eratzeko.

Bitartean, Azkoitia Lantzenek epe motzean betetzeko zituen konpromisoen ingurukoak bideratzen aritu da udal gobernuak. Epe motzean aurre egin beharreko obligazioak negoziatu ditu, sozietatearekiko konpromisoak eduki arren betetzen ez zituztenak epaitegietara eraman... etengabea izan da kudeaketa eta negoziazioa, akordio horiek lortu ezean sozietatea kinka larrian gelditzeko arriskua baitago.



**Azkoitia Lantzenek 3.726.622,8 euroko maniobra fondo negatiboa du**

**Sozietatea publikoaren 2012ko galerak 1.184.921,48 eurokoak dira**

Eta orain txosten horien emaitzak iritsi dira. Diputazioak egindako balorazioaren arabera, Azkoitia Lantzenen patrimonioaren balioa 9.342.334 eurokoa da une honetan, alegia, orain hiru urte baloratu baino 11.000.000 euro gutxiagokoa (2010eko balorazioak 20.632.775,31 euroko existentziak jasotzen zituen). Eta eguneratutako datu horiek eskuan, diagnostiko bat egin du auditoria etxeak, benetako egoera zein den azaltzeko. Honako ondorioak atera ditu diagnostiko horrek: Azkoitia Lantzenek 3.726.622,8 euroko maniobra fondo negatiboa duela (alegia, pasiboak edo betebeharrak akti-

boak baino gehiago direla) eta 2012ko galerak, berri, 1.184.921,48 eurokoak direla.

Diagnostikoarekin batera, hainbat neurri hartzea ere gomendatu du auditoriak, eta neurri horiek martxan jartzea erabaki du Udal gobernuak. Hala erabaki zuen uztailaren 18ko plenoak. Neurri horien helburua izan da, batetik, Azkoitia Lantzenek Elkargunean eta Ugarteigaran igerilekuetan egindako inbertsioak babestea eta hauen egoera erregularizatzea, eta bestetik, Udalarri dagokion hirigintza aprobetxamenduko ondareak babestea. Horrez gain, Azkoitia Lantzen eta udalaren artean pendiente zeuden kontuak likidatu dira, eta ondorioz, Udalak 25.000 euro ordaindu beharko dizkio sozietateari.

Diagnostikoak argi dio: hartutako neurri horiekin sozietatea martxan jarraitzeko moduan da, beti ere gutxieneko eta oinarriko funtzionamendurekin jarraituta eta hirugarrenek epe laburrean erreklamaziorik egiten ez badute. Izan ere, hirugarrenek esku dago sozietatearen etorkizuna: enpresa, partikular edo finantza erakunderen batek erreklamazioen bat eginez gero, eta akordiorik lortu ezean, kiebra egoeran sartu daiteke Azkoitia Lantzen.

Horregatik, negoziazio eta bestelako gestioetan bere esku dagoen guztia egiteko konpromisoa beretsi du Udalak. Izan ere, Azkoitia Lantzenen balizko porrotak zuzenean kaltetuko luke Azkoitiko Udala, eta ondorioz baita azkoitiarrak ere, eta hori ekiditea lehentasunezkoa da udal gobernuarentzat.

*Desde que en el verano del 2011 el actual gobierno municipal tomara el mando de la gestión municipal, la situación de la sociedad pública Azkoitia Lantzen ha sido uno de las principales escollos a resolver. Nada más entrar en el ayuntamiento, el Consistorio se encontró con que la situación de la sociedad pública era crítica, con muchas obligaciones a cumplir a corto plazo, y apenas medios para hacerles frente. Ante esta situación, el Consistorio se ha centrado en negociar las*

*obligaciones que la sociedad pública tiene con terceros, en reclamar las obligaciones que terceros tiene para con la sociedad y esclarecer la situación real de A. Lantzen. Ha encargado varios estudios para actualizar el valor del patrimonio de las sociedades, elaborar un diagnóstico según esa nueva valoración y realizar un plan de viabilidad. Dichos estudios han demostrado que la sociedad tiene un fondo de maniobra negativo de 3.726.622,8 euros, y que las pérdidas del*

*2012 han sido de 1.184.921,48 euros. Ante esta situación el Consistorio ha aprobado varias medidas para, por un lado, proteger las inversiones realizadas por A. Lantzen en el Elkargune y las piscinas de Ugarteigaran y regularizar su situación; por otro lado, medidas para proteger el patrimonio municipal correspondiente a los aprovechamientos urbanísticos de distintos ámbitos, y por último se ha acordado regularizar los flujos económicos entre el ayuntamiento y A. Lantzen.*

## Bi urteotan egindako gestioaren emaitzak

Eguneko udal gobernuak alkatetza eta Azkoitia Lantzenen kudeaketa bere esku hartu zituenetik gestio ugari egin ditu sozietatearen egoera bideratzeko. Hemen kudeaketa horren ondorioz lortutako emaitzen zerrenda.

1. Azkoitia Lantzen S.A.ren egoera aztertzeko txostenak: juridikoak, kudeaketakoak eta hirigintzakoak.
2. Aurreko urteetako kudeaketak erakutsi duen obskurantismoaren aurrean, azken bi urteetako kontuetan sozietatearen egoeran eragina izan dezaketen eta ezagutzen diren elementu guztiak sartu dira, gardentasunez eta zehaztaperen guztiekin: sozietateak dituen eta ezagutzen diren obligazioak, arriskuak sortzen dituzten egoerak... Lehen agertzen ez zen informazioa argi eta garbi azaltzen da orain kontuetan; halaber, horri esker, 2010eko kontuetan garrantzitsuak diren zuzenketak egin dira.
3. Azkoitia Lantzen S.A.ren egoeraren diagnostikoa eta bideragarritasun plana egin dira eta datozen hiru urteetarako estrategia diseinatu.
4. Udal sozietatearen ondarearen (lurren) balorazio gaurkotu da, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien laguntzarekin. Eguneratutako balorazioak egiaztatu du 2010etik hona 11.000.000ko gainbalorazioa zegoela.
5. Azkoitia Lantzen S.A.k egin dituen inbertsioak, udal jabetzako ondasunetan (Elkargunea eta igerilekuak), babesteko neurriak hartu dira 2013ko uztailaren 18ko plenoan. Horrez gain, pleno berean udalarri dagokion hirigintza aprobetxamenduko ondareak babesteko neurriak ere hartu dira.
6. Azkoitia Lantzen eta udalaren artean pendiente zeuden kontuak likidatu dira. Emaita: udal sozietatearen aldeko 25.000 euroko saldoa.
7. Sergio S.A. eta Elea S.L. enpresek negoziatu eta akordio bat lortu du Udalak. Horri esker, tartekaturik zeuzkaten epaiketak bertan behera utzi dira. Epaiketa hauetan, bi enpresa horiek. 6.611.133, erreklamatu zizkieten Azkoitia Lantzenen, 2007tik aurrerako interesak eta auzien kosteak zirela eta. Udalaren kudeaketari esker izenpetutako akordioaren ondorioz, auziak bertan behera utzi dituzte enpresek.
8. Txalonereko 10.1 eremuko jatorrizko lurjabe baten 270.404 euroko abala exekutatzeko ohartarazpena jaso ondoren, 2012ko ekainaren 13an hitzarmen bat izenpetu zuten bi alderdiek eta korapiloa askatzea lortu zen.
9. Txalonereko 10.1 eremuko jatorrizko lurjabe batekin hitzarmen bat izenpeturik zegoen 354.000 euroko zorra onartuz, eta 200.000 euro ordaintzeko gelditzen ziren. Obligazio hau bete gabe zegoela ikusita, 2013ko urtarrilaren 13an sozietateko lehendakariak eta lurjabeak akordio berri bat izenpetu zuten. Ondorioz, lurjabeak 100.000 euro eskuratu zituen, eta gainontzeko kopurua, 2014ko ekaina baino lehenago ordainduko zaio.
10. Txalonereko bi eremutan herriko sustatzaile batekin 2006an eta 2008an izenpetu ziren hitzarmenak betetzen ez zirela ohartuta, 2011ko hauteskundeetatik sorturiko kontseilu berriak hitzarmena birnegoziatu du, eta honen ondorioz, Azkoitia Lantzenek 97.737 euro kobratu ditu orain, eta kopuru berdina kobratuko du 2014ko ekainean. Hitzarmena 2013ko apirilaren 30ean izenpetu da.
11. Eginoberri eremuan, Bernardo Ecenarro S.A.rekin 2010eko abenduan izenpeturiko kontratuan agertzen ziren betebeharrak eta obra guztiak gauzatu dira, eta horien ondoren, enpresaren lantegi berriaren eraikuntza aurrera doa.
12. Eginoberri eta Intsausti eremuetan Azkoitia Lantzen S.A.rekin hitzarturiko konpromisoak bete ez dituzten enpresak (Hierros Eguino, Lurkide Hondalanak, Hirigintza, Sierras Sabi, Biteso eta Galmak XXI) auzitara eraman ditu Azkoitia Lantzenek. Une honetan auzi horiek martxan daude, eta Eginoberriko kasuan, aurreneko auzi-ebazpena, udal sozietatearen aldekoa izan da.
13. Eginoberri eremuan, Azkoitia Lantzen S.A.k etengabeko gestioak egin ditu eta egiten ari da, eremu horretan sortzen den kutsaduraren ondorioak (ixibatua) Azkoitiko herriak eta natura ondareak jasan ez ditzaten. Une honetan, Eusko Jaurilaritza ari da ixibatua kudeatzen, eta udal sozietatea horren jarraipena egiten ari da.
14. Gurutzeaga eremuan, Azkoitia Lantzen S.A.k eta TGF enpresak 2006an izenpeturiko kontratua urratu egin du azken horrek, eta 721.000 euroko zorra eragin. Azkoitia Lantzen S.A.k gaia bideratu du, eta une honetan Azkoitiko udala aipatu zorra kobratzen saiatzen ari da, exekuzio bidetik.
15. 2012ko ekitaldian, Azkoitia Lantzen S.A.k merkatuan jarri zuen partzela bat, saltzeko asmoarekin. Prozedura hutsik gelditu zen. Berdin gertatu zen bi garajeen salmentarekin.
16. Azkoitia Lantzen S.A.ren aurreko Kontseiluak onarturiko obligazioen ondorioz, udal sozietate honek 800.000 euroko kopurua ordaindu behar dio Urola Industrialdea S.A.ri, Oñartxo eta Eginoberriko urbanizazioengatik 2013ko urtean. Auditoreek agerian jarri duten moduan, ordainketa horrek Azkoitia Lantzen S.A. likidazio egoeran sartuko luke, sozietatearen kiebrarekin. Egoera hori ekiditeko, oraingo kontseiluko lehendakaria negoziatzen ari da UISArekin, eta bi alderdiak proposamen zehatz bat lantzen ari dira, egoerari irtenbidea emateko.
17. Horiez gain, sozietateak bere egunerokotasunean dituen gaiak aztertu eta kudeatzen ari dira.



## Kale Nagusiko lokal hutsak apaintzeko lehiaketa, martxan



xede eta Azkoitiko alde historikoari duintasuna eta bizitasuna ematea. Lehiaketak 2.000 euroko saria izango du, eta parte hartzaileek honakoa aurkeztu beharko dute: dagoeneko zehaztuta dauden bost eskaparate apaintzeko proiektu bat. Oinarrietan daude zehaztuta aurkeztu beharreko lanen nondik norakoak (udal webgunean edo Kultur Sailean eskuratu daitezke). Lanak aurkezteko epea irailaren 13an amaitzen da eta horren ondotik, proiektuak Torre Zurin jarriko dira ikusgai, herritarrek ere euren gogokoenari botoa emateko modua izan dezaten. Informazio gehiago: 943 85 71 70.

*El Consistorio ha organizado un concurso para decorar los locales que actualmente están en desuso en la Calle Mayor. El plazo de entrega de los proyectos termina el 13 de septiembre. Para más información: 943 85 71 70 o www.azkoitia.net.*

Azkoitiko Udalak berriz ekin dio erakusleihen lehiaketari. *Kale Nagusia: merkatal bizitzara begira dagoen leihoa* lemapean, Kale Nagusian dauden lokaletako erakusleihok modu erakargarrian apaintzea du



## Aittolako parkean zaborrak jasotzeko eskaria

Aittolako parkea zaborrez beteta ageri da, asteburua joan asteburua etorri. Hara joandako hainbat herritarrek sortutako hondakinak bertan uztea erabaki dute, nonbait. Jarrera hori salatu eta hondakinak Otarre

pareko edukiontzietara eramateko eskatu nahi die Udalak herritarrei. Ingurumena zaintzea guztion ardura eta erantzukizuna da eta gizalegez jokatzeko ezinbestekoa da gure para-jeak behar bezala mantentzeko.

*Últimamente el parque de Aittola ha aparecido lleno de basura. El Consistorio pide a la ciudadanía que, por favor, recoja los residuos que genera y los deposite en los contenedores más cercanos (situados en Otarre).*

## 'Tekla'ko etxe sozialen proiektua azkartu nahian

Pello Bastarrika alkatea Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza sailean izan da Azkoitiko alokairu sozialeko etxebizitzaren proiektuaren inguruan hitz egiteko. Zehazki, Floreagako edo 'Tekla'ko etxeen ingurukoak argitzera joan da. Izan ere, 2007an gune horretan babes sozialeko 33 etxebizitza egiteko proiektua onartu zuen Jaurilaritzak, baina aurtengo ekainaren 20an gune horren eraikitze lizentziari uko egiten ziola jakinarazi zioten Lakuatik Azkoitiko Udalarari.

Proiektu hori Azkoitia eta azkoitiarrarentzat oso garrantzitsua dela adierazi die Jaurilaritzako arduradunei alkateak, herrian alokairu sozialeko etxebizitza premia handia dagoelako eta garai zail hauetan babes sozialak lehentasuna izan behar duelako. Jaurilaritzako ordezkariak adierazi diote lizentziarekin aurrera jarraitzeko asmoa dutela, baina une honetan lehentasunak aztertzen ari direla eta lehentasunen zerrenda hori udazkenean egingo dutela. Udalak adierazi nahi du proiektu hori azkartzeko bere esku dagoen guztia egingo duela.

*El alcalde se ha reunido con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco para pedirle que acelere el proyecto de construcción de las viviendas sociales de 'Tekla'.*



**Enpresetan euskara planak sustatzeko.** Lanean euskara bultzatzea lehentasunezkoa da Udalarentzat. Horregatik, apirilaren 25eko plenoak onartu zuen Azkoitiko enpresetan euskara planak sustatzeko diru-laguntzak ematea. Eskaerak aurkezteko azken eguna azaroaren 15a da. Enpresa bakoitzak gehienez urteko 2.000 euro jasoko ditu. *El consistorio ha aprobado una nueva subvención para promover planes de euskera en las empresas.*



**Kurtso amaierako festa** Mintzalagun programako azken kurtso egunean, partaideek Javier Camon sukaldari azkoitiarrarekin profiterol tailerra egin zuten Elkargunean. Ondoren ikasturtea amaitzeko Azkoitiko AEK euskaltegiko ikasleekin Jubilatuetan afaldu zuten. Afarian ez zen kanturik falta izan. *Fiesta de fin de curso de Mintzalagun y del euskaltegi.*



**Bai Euskarari zozketako saridunak.** Arantza Elorzak eta Fran Muniociok eskuratu dituzte Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduetan banatutako 200 euroko hiru sarietatik beste biak. *Ganadoras/es del sorteko Bai Euskarari.*

### Euskara ikasteko beka.

Euskara ikasteagatik beka eskatzeko azken eguna irailaren 30a da. Errotulua, irudi korporatiboa, web orria edota programa informatikoa euskaraz jartzeagatik, berriz, azaroaren 15a bitartean eskatu daitezke. Oinarriak (GAO,129 zk., 2013ko uztailaren 8a) eta eskaera normalizatua eskuragarri daude harrera bulegoan eta web gunean.

*Fechas y bases para pedir subvenciones para aprender euskera, en www.azkotia.net.*



## Bai euskari ziurtagiria duten eragileak



ziurtagiriaren elkartea



ALDALUR GIZONEZKOEN JANTZIAK  
AMBATO OKINDEGIA  
ARANBARRI DROGERIA  
ARKUPE TABERNA  
ARROSPIDE OINETAKOAK  
ATERPE TABERNA  
AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA S.A.  
AZKOITIKO EZKER ABERTZALEA  
AZKOITIKO EAJ-PNV  
AZKOITIKO GURUTZE GORRIA  
KOKKA KAFETEGIA  
KINTTELA ESTANKOAK  
KUTXA  
LUR NATUR DENDA  
MAINE MERTZERIA

MILAR LARRAMENDI  
MOBELTEKNICA IKASI, S.L.  
NHOA ESTUDIOA  
OLABERRI PUB  
OREKA BIOELKARTEA  
OSTADAR OPTIKA  
PLAZA BERRI SPORT  
PRESALDE GOZOTEGIA  
BIZKARGI MUSIKA ESKOLA  
DEAN TABERNA  
ELKARMEDIA S.L.  
EROSKI BIDAIAK  
EROSKI HIPERMERKATUAK  
EROSKI ZENTER  
ETXANIZ AUTOESKOLA

FK KOPISTEGIA  
FLOREAGA SALESTAR IKASTETXEA  
GONZALO CAMARON BITXITEGIA  
ITZIAR IATETXEA  
ITZIAR ARRANDEGIA  
PSOE TABERNA  
SERBITZU ELKARTEA S.L.  
TILIN TALAN UME ARROPA DENDA  
TAILETU INMOBILIARIA  
TRAKI HARATEGIA  
URIA SULKALDEAK  
XABIER MUNIBE IKASTOLA DBH  
XABIER MUNIBE IKASTOLA LH  
YALAI GOZOTEGIA  
ZAKELA KULTUR ELKARTEA

baieuskarari.org

## Liburutegia bete ipuin

Herritarrak ipuin kontalari, e-book eta ordenagailu portatil zerbitzua... berrikuntza ugari estreinatu ditu udal liburutegiak udan



Iñaki Goitisoló, ipuinak kontatzen.

Ipuin kontalari bereziak ditu udan Aizkibel Udal liburutegiak. Ez dira kontalari profesionalak, herritar xumeak dira, ipuin zaleak eta istorioak kontatu zaleak. Yamelli Prieto, Gurutz Garmendia, Ana Albizuri, Nerea Astigarraga eta Iñaki Goitisoló, astearte eta ostegun arratsaldero eta txandaka, ipuinak kontatzen aritu dira uztailean eta beste horrenbeste egingo dute abuztuan ere, herritarrak animatzen badira.

Gustura hartu dute ekimena herritarrek: ipuin kontalarien bueltan biltzen diren haur eta gurasoek giro atsegina eta aberatsean pasatu dute arratsaldea. Eta abuztuko saioetan ere hala izatea espero dute; ipuin magikoak

prestatu dituzte, txiki zen haundiek gozatzeko modukoak, eta herritarrak parte hartzerantz animatu nahi dituzte. Astearte eta ostegunero izango dira saioak, 18:30ean, liburutegian bertan.

Horrez gain, bestelako materialetan ere berrikuntzak eta hobekuntzak izan dira: hala, ekain amaieraz gozotik, e-book bat eta ordenagailu portatil bat jarri dituzte herritarren zerbitzura, erabili nahi dituen guztien eskura. E-booka etxera maileguan eraman daiteke, eta portatila liburutegian bertan erabiltzeko da. Aparailu hauek guztion eskura daudela adierazi nahi du liburutegiak eta behar bezala zainduz gero, guztion mesederako izango dela.

*La biblioteca municipal ofrece nuevos servicios desde el comienzo de verano; por un lado, ha puesto un e-book y un ordenador portátil al servicio de las personas usuarias, y por otro, ha organizado una serie de sesiones con cuentacuentos aficionadas/os del municipio, todos los martes y jueves, a las 18:30.*

### Udako ordutegia:

Goizez: 9:30eti 13:30era irekita, egunero (larunbatetan itxita).  
Arratsaldez: astearte eta ostegunetan 18:00etatik 20:00era irekita (astelehena, asteazkena eta ostiral arratsaldez itxita).  
Abuztuan, festak direla eta, 14tik -19 itxita. Irailan 1etik hasiko da ordutegi normalean.

### Ate berria, irisgarritasuna bermatzeko.

Aizkibel Udal liburutegiak sarrera ate berria dauka ekainaz gozotik. Irisgarritasuna hobetzeko asmoz aldatu du atea Udalak; orain artekoa ez bezala, sensore bidez zabalitzen da, gisa guztietako oztipoak saihestuz.



## 400 haur baino gehiago



Uztailak Jolasean eta Praka Motxakin udaleku irekietan 400 haur inguruk hartu dute parte. Horietatik 374 Uztaila Jolasean ibili dira, bi txandatan banatuta, eta beste 30 Praka Motxakin programan. Horrez gain, beste dozenaka haur ere ibili dira udako kirol kanpian.

Uztaila Jolasean Alai Batza aisialdi elkarteak antolatu du, eta guztira 33 begirale aritu dira txikien zaintzan. Praka motxakin programa berriz, Abarketatxo ludotekak antolatu du, 10-12 urte bitartekoentzako umeentzat, eta hiru lagun aritu dira begirale lanetan.

Gazteria Sailak eskerrak eman nahi dizkie ekintza hauetan lan egin duten hezitzaile, begirale eta aisialdiko elkartei, egindako lanagatik.

### Iraileko ordutegiak:

#### Gazte informazio bulegoa:

Irailaren 9an hasiko da berriro martxan, 16:30etatik 20:00etara.

#### Abarketatxo ludoteka

Bazkietza egiteko epea irailaren 9an zabalduko da, 17:00etatik 19:00etara. Zerbitzua, berriz, irailaren 16an hasiko da.

#### Artxamendi topalekua

Zerbitzua irailaren 12an hasiko da, 16:30etatik 19:30etara. Irailaren 11 eta 12an ate irekiak egingo dituzte.

*Más de 400 niñas/os y 36 monitoras/es han participado en las colonias abiertas de julio: 374 han disfrutado del programa Uztaila Jolasean y 30 del denominado Praka Motxakin.*

## Indusketen 8. ekinaldia

Aurten ere hasi dira Munoandiko Burdin Aroko herri harresituan indusketak egiten. Uztailaren 15ean hasi ziren, eta abuztuaren 3ra arte arituko dira lanean bertan Aranzadi elkarte arduradunak eta 20 bat boluntario. Indusketen aurtengo helburua etxebizitza eta eguneroko bizimoduaren arrastoak bilatzea izango da. Munoandira gerturatzen diren herritarrek informazio panelak izango dituzte bertan ikusgai.

*El 15 de julio comenzó la campaña de excavaciones arqueológicas en Munoandi y finalizará el 3 de agosto.*



## Baztartxo kudeatzeko

Baztartxo zine-antzokia kudeatzeko lehiaketa publikatu berri du Azkoitiko Udalak. Abuztuaren 7a amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Irargaria eta pleguak: [www.azkoitia.net](http://www.azkoitia.net). Abierto el proceso de licitación para gestionar Baztartxo.



### Abuztua

#### 6 astearte

• Donostiko Santa Maria del Koroko hiru organisten kontzertua. Musika Hamabostaldiak antolatuta, Azkoitiko parrokan, 20:00etan.

#### 10, larunbata

• "Martitterako igoera", 17:00etan, herriko plazatik abiatuta. Jokin Ormaetxea txirindulari elkarteak antolatuta. Izen ematea: aurretik, Zurt, Ttakun eta Koxkan, edo egunean bertan, 16:00etatik 16:30era, Herriko Plazan.

#### 13, astearte

• "XVII Javier Sagarzazu Saria",

17:00etan, Txerloiko futbol zelaietan.

#### 14-18, andramaixek

• Egitaraua etxetara banatuko da.

### Iraila

#### 26ik 29ra

• Garapena bidelagun aste solidarioa.

# Badatoz Andramaixek!!

## Badaukagu kartela

Beñat Alkortak irabazi du Andramaixetako kartel lehiaketa eta bere irudiak iragarriko ditu aurtengo festak. Jain zain agertzen da azkoitiar bat bertan, eta zain-zain gaude gu ere!



### **Azkoitiarrek proposatutako berrikuntzak ere izango dira:**

Ume eta gurasoentzat herri bazkaria eta jolasak, koadrilen arteko kamixeta lehiaketa, jendea dantzan jartzeko saioak... Herritarrekin egindako bileretan eurek proposatu eta eurek aukeratutako hainbat ekitaldi egongo dira. Festetako programa osoa laster jasoko duzu etxean.

### **Etorri, animatu eta parte hartu! 2013ko Andramaixek izuarrixek izengoie!**



Kale Nagusia, zg. • Tel.: 943 080080  
20720 AZKOITIA  
Informazio gehiago: [www.azkoitia.net](http://www.azkoitia.net)

Informazioa eman eta jasotzeko eta herritarren parte hartzea errazteko:

